Lan-eskaintzen erregistroa 2021ean

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2021ean Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 11.826koa izan da, 2021an baino 2.997 gehiago (% 33,9ko hazkundea).

- **LURRALDE HISTORIKOAK**

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2021an 1.758 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 4.656 Gipuzkoan eta 5.412 Bizkaian.

Lan-eskaintzen % 45,8 Bizkaiko KAUetan erregistratu dira, % 39,4 Gipuzkoan eta % 14,9a Araban.

Eskaintzaren Lurralde Historikoa



Aurreko urtearekin alderatuz, lurralde guztiek bilakaera positiboa izan dute. Gipuzkoan hazi dira gehien kontratuak, %44,2, Araban % 30,6 hazi dira eta Bizkaian % 27,2.

- **LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA**

Bost lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak Zientzia teknikarien lanbide-profilerako erregistratuko lan-eskaintzak dira pisu haundiena dutenak (%19,7, 2.326 eskaintza). Zerbitzuetako, industriako, laguntzarako teknikarien eta okupazio ez kualifikatuen lanbide-profilek ere pisu nabarmena dute erregistratutako lan-eskaintzetan; 2.064, 2.033, 1.936 eta 1.531 eskaintza erregistratu dira, hurrenez hurren. Lan-eskaintza gutxi-en erregistratu den profila zuzendariena izan da (83 eskaintza soilik), lehen sektoreko langileen aurretik (130 lan-eskaintza).

Urte arteko saldoari erreparatuz, profil guztietako eskaintzak hazi dira, lehen sektoreko proifilekoak izan ezik (%7,1eko murrizketa). Bai balio erlatibo zein absolutuetan, laguntza teknikarien profileko eskaintzak dira gehien hazi direnak (%52,1eko hazkundea, 696 eskaintza gehiago).

- **KONTRATU MOTA**

Erregistratutako lan-eskaintzen %14,0k kontratu mugagabea eskaini dute; %85,1ek, aldi bate- rakoa, eta, gainontzeko %0,9k, merkataritzakoa. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 1.656 izan dira, 628 gehiago aurreko urtearekin alderatuz, %61,1eko hazkundea. Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten eskaintzak 2.335 hazi dira: guztira 10.068 eskaintza izan dira. Kopuru erlatiboetan hazkundea %30,2koa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratu- en eskaintzak 2021an 102 izan dira, aurreko urtean baino 34 gehiago (%50,0ko jaitsiera).

Eskainitako kontratu mota



Kontratuen kalitatea aztertzeak ere garrantzia du. Aldi baterako kontratuen kopurua oso handia da, baina urte honetan kontratu mugagabeek pisua irabazi dute (% 11,6tik % 14,0 izatera pasa dira).

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2021an erregistratutako lan-eskaintzen %74,7k (8.837 eskaintzak) 0tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen %13,2k (1.559) esperientzia-denbora luzeagoa eskatzen du, 6 hiletik 12ra artekoa. Eskaintzen %9,3k, 1.094k, urte 1etik 3ra arteko esperientzia eskatzen du. Portzentaje txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek eta 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenek, hain zuzen; %2,4ko eta %0,5eko pisua dute, hurrenez hurren.



Urte arteko eboluzioari dagokionez, tarte guztietako eskaintzak hazi dira. Gehien hazi diren eskaintzak, bai balio absolutuetan bai erlatiboetan, 0 eta 6 hilabete bitarteko esperientzia-denbora eskatzendutenak izan dira, %37,6ko hazkundea (2.415 eskaintza gehiago).

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 7 hileko esperientzia eskatu dute 2021an, aurreko urtean bezala.

• LANALDI MOTA

Analisiarekin hasi baino lehenago, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintza guztien % 13,4k zehazten du datu hori (11.826 eskaintzetatik 1.590ek). 1.590 eskaintza horietatik, 1.282 (% 80,6) lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 308k lanaldi partziala eskaini dute.



Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 103 gehiago izan dira aurreko urtearekin alderatuz, hau da, %8,7 hazi dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak 4 gutxiago izan dira; mu- rrizketa %1,koa izan da.

Erregistratutako eskaintzen % 1,4 izan dira ABLEen bitartez kudeatu direnak, 11.826 eskaintze-tatik 162 soilik. Aurreko urtean 74 izan ziren.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen %81,7k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 11.826 eskaintzetatik 2.164k soilik zehaztu dute.

2.164 eskaintza horietatik, 793k LHko prestakuntza maila eskatu dute (%36,6k); gehien eskatu den prestakuntza maila izan da. Horiei jarraituz, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak daude, 767 eskaintza (%35,4). Ondoren, gutxieneko ikasketak eskatzen dituztenak daude 469 eskaintzekin (% 21,7). Azkenik, batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude, erregistratutako 135 eskaintzekin, eta % 6,2ko pisua dute erregistratzeko orduan adierazle hau zehaztu duten 2.164 eskaintzen artean.

Eboluzioari dagokionez, esan beharra dago 2021an lan-eskaintza gehiagotan zehaztu zela prestakuntza maila (2.164 eskaintza 2021ean; 1.541 eskaintza 2020an), eta hauen pisua handiagoa izan da eskaintza guztien artean (% 18,3koa aurten iazko %17,4aren aldean). Urte arteko erlazioari erreparatuz, eskaintza mota guztiak hazi dira. Unibertsitateko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak izan dira gehien hazi direnak balore absolutuetan, 262 eskaintza gehiago, % 51,9ko hazkundea; balio erlatiboetan, aldiz, oinarrizko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira bilakaera onena eduki dutenak (% 52,8ko hazkundea, 162 eskaintza gehiago).

- **ESKAINTZAREN JARDUERA**

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen diren jarduera manufaktura-industria eta merkataritza dira, eskaintzen %14ko, eta %12,4ko pisuarekin, hurrenez hurren (1.658 eta 1.464 lan-eskaintza 11.826 eskaintza guztietatik, hurrenez hurren).

Aurreko urteari erreparatuz gero, jarduera guztietan hazi dira eskaintzak, erauzketa industrian eta lehen sektorean izan ezik (2 eskaintza gutxiago bi kasuetan). Lan eskaintza hazkunde handiena izan duen jarduera, balore absolutuetan, manufaktura industria izan da (509 eskaintza gehiago, % 44,3ko hazkundea); aldiz, balore erlatiboetan, jarduera artistiko, jolaserako eta entretenimenduzkoetan izan da hazkunde handiena (% 132,9ko hazkundea, 105 eskaintza gehiago).